

PROBA ESPEZIFIKOA

2020ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2020

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2020

HISTORIA DEL ARTE

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Probak bi atal ditu:

1. atala: Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala: Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. ATALA:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2020

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2020

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. ATALA:

GARATU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

A: Bizantziar mosaikoa.

B: Surrealismoa.



EBAZPENA ARTEAREN HISTORIA (2020)

• KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak:

- Artelanak beren testuinguruan analizatu eta interpretatzen ditu, eta zuzen erabiltzen du diziplinaren lexiko espezifikoa.
- Arte-hizkuntza zorrotz interpretatzen du (formak, gaiak eta esanahiak).
- Zenbait tokitako obra adierazgarriak alderatzen ditu, eta haien arteko aldeei, antzekotasunei eta harremanei antzematen die.
- Gaien tratamenduan gertatzen den aldaketa deskribatzen du, bai eta arteari elkartutako erabilera eta funtzio berrien eragina ere.
- Modu egokian garatzen du artearen historiari buruzko gai teoriko bat.

1. ATALA:

A) Doriforoa. Polikleto.

K.a. 450-440.

Eskultura bakartua edo exentua. Jatorrizko obra brontzezkoa zen; kopia erromatarra, marmolez egina.

Greko klasikoa

Deskribapen formala

Polikletok atleta gazte baten irudia zizelkatu zuen: atleta zutik dago, biluzik, eta lantza bati eusten dio ezker-eskuarekin —gaur egun, lantza galdua dago—.

Eskulturaren konposizioa autorearentzat kanon anatomiko perfektua osatzen duten proportzio, neurri eta lerroen kalkulu zehatz baten bidez gauzatua dago. Kanon horren arabera, altuera osoak burua halako zazpi izan behar du.



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Polikletok gorputz atalen arteko joko harmoniko sotil bat ezarri zuen oreka lortzeko, **contrapposto** deritzona. Hala, autoreak kontrajartze interesgarria lortu zuen dinamikoaren eta estatikoaren artean; izan ere, gorputz-enborra tentsioan dago, eta, aldi berean, eskuineko aldakaren goratzea markatu eta ezkerreko hanka tolesten du, sorbaldetan kontrako efektua eraginez.

Modelaketan, gorputza landuagoa dago tortsoan; han, garbi nabari dira muskuluen lerro nagusiak. Buruan, borondate naturalista handiagoa nabari da, keinua gehiago hartzeko eta ilea plastikoki banatzeko.

Aurretik ikusteko egina dago; nabarmen markatzen du ardatz bertikala.

Gaia

Eskultura honek atleta bat irudikatzen du; atsedeen-egoeran dago, jaurtiketa-proban parte hartu baino lehentxeago. Irudiak grekoen garai klasikoko ideal antropologikoa laburbiltzen du: jokoetan parte hartzeko prestaturiko gizona, gaztetasun betean, indar fisikoaren eta adimenaren, trebetasunaren eta borondatearen arteko orekan.

Oreka eta harmonia irudikatzeko, proportzio fisikoek bete-betean jarraitzen diote artistak ezarritako kanonari. Aurpegiak hiru zati berdinetan banatuta egon behar du.

B) Angelusa. Jean François Millet.
1857-1859.
Oihal gaineko olio-pintura. Errealismoa.

Deskribapen formala

Argi-kontrastea ikusita, bi figurek argiaren eta itzalaren eremuetan duten kokapenak nabarmenduta, ondoriozta daiteke ilunabarrean gertatzen dela eszena hunkigarri hori.

Horizonte altuak pertsonaien indibidualizazioa nabarmentzen du konposizio itxi batean. Artistaren estiloan ohikoa zen bezala, pintzelkadan eta marrazkian segurtasuna erakusten du; paleta kromatiko leuna erabiltzen du ingururako, eta ilunagoa figuretarako.

Gaia

Margolan honen erreplikak etxe kristau askotan egon ziren. Millet eszena hori margotzera bultzatu zuen arrazoia ez zen erlijioa izan. Hain zuzen, nostalgiak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2020

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2020

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

inspiratu zuen margolaria. Nekazari-familia batekoa zen, eta gaztaroko angelus-otoitza gogoratzen zuen.

Margolariak erabilitako gaiagatik, kritikariek sozialistatzat hartu zuten, baina Milleten benetako asmoa langileen espiritualtasuna transmititzea izan zen, ikuspeirik errealistenean eta topikoetatik urrun.

2. ATALA

GARATU GAI HAUETAKO BAT (5 puntu).

1. gaia: Bizantziar mosaikoa.

Bizantziar arteak hormak, gangak eta kupulak mosaikoz estaliz aberastu eta ederdu zituen elizetako barnealdeak. Erromatarrek lehenago erabilitako hainbat mosaiko-teknika erabili ziren; batez ere, *opus tessallatum* teknika. Oso gama kromatiko aberatsa erabili zuten, eta urre-koloreak garrantzi handia izan zuen.

Bizantziar mosaikoetan irudikatutako ikonografia nagusiki erlijiosoa da: Kristo garailea, Ama Birjina, Jesusen bizitza eta Jainkoa gizakien aurrean Mendekoste gisa agertzea.

Gorteko adibiderik aipagarrienak Ravennako San Vitalekoak dira, Teodoraren eta Justinianoren gortekoen irudikapena. Izaera erlijiosoko mosaikoen artean, Ortodoxoen bataiategikoak eta Arianoen bataiategikoak dira nabarmentzekoak, biak Ravennan.

Formari dagokionez, pertsonaien irudikapen hieratikoa, simetrikoa, laua eta frontala nabarmentzen da, urre-koloreko hondoen gainean, non oso gutxitan ageri baita arkitektura- edo paisaia-elementuren bat. Irudikapen antinatural horrek errealitatetik eta denboratik kanpo kokatzen ditu pertsonaiak, eta, garai hartako ikuskera kristauan, irakurketa sinbolikoa du, zeinaren arabera Probidentzia jainkozkoak betierekotasunerako esleitu dien espazioa okupatzen baitute.

(...)

2. gaia: Surrealismoa.

Surrealismo izenak arte-korronte bat izendatzen du, 1920ko hamarkadan dada ikonoklastiatik abiatu, pintura metafisikotik ametsetan sortutako irudiak hartu eta automatismoa erantsi ziona, hau da, prozesu bat zeinaren bidez espresio aske,



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2020

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2020

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

arin eta erraza, arrazoimenaren kontrolik gabea, obrak gauzatzeko metodoa bihurtzen baita. Surrealismoaren agerpena Lehen Manifestu Surrealistarekin (1924) lotuta dago. André Breton idazleak sinatu zuen; bera zen taldearen buru ideologikoa, eta Freud-en ametsen interpretazioarekin lotutako teoriak zuzenean ezagutzen zituen, bai eta ideien elkartze askean oinarritutako psikoanalisi-teknikak ere.

Surrealismoaren barruan, bi korronte bereizten dira:

- **Korronte automatista:** Sinboloen unibertso bat erreproduzitzen du; batzuetan, sinbolo abstraktuak dira, inkontzientetik eta zoritik sortuak eta azkar eta erraz irudikatuak.
André Masson eta Joan Miró izan ziren ordezkari nagusiak.
- **Korronte onirikoa:**
Irudikapen figuratiboaren arauetara jarraituz, ametsetako elkarte bitxi eta kezkarriak birsortzen ditu. Salvador Dalí eta René Magritte dira korronte honetakoak.

(...)